



TOKIKO AGENDA 21 ASTEASUKO EKINTZA PLANA

2013ko EMAITZAK

Gipuzkoako udalerriei
TA21eko ekintza planak
ebaluatzen zerbitzua

Laguntza teknikoa: *Enea*



TA21EKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO AL 21
GIPUZKOA



ASTEASUKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

Tokiko agenda 21

Tokiko agenda 21 1992an jaio zen Rio de Janeiron ospatu zen **Iraunkortasun Garapenari** buruzko Nazio Batuen Gailurrean lortutako hitzarmen bidez.

20 urte beranduago bere presentzia **Gipuzkoan** oso esanguratsua da.

Tokiko agenda 21aren presentzia Gipuzkoan

- **83 udalerrik tokiko agenda 21** onartu dute.
- **40** udalerrik beren tokiko agenda 21a urtero ebaluatzen dute, hauen artean, gureak, udalerrri hauek **Gipuzkoako biztanleriaren % 80 baino gehiago** hartzen dutelarik. Kasu hauetan, agenda 21a kontuen emateari bideratutako udal kudeaketa eredu gisa aurkezten da.
- Aldundiak **9** urte daramatza **tokiko agenda 21aren Behatokitik** bere garapena eta ebaluazioa sustatuz, baita udal politika hauen helburuekiko kudeaketa bultzatuz ere.


Nolakoa da gure udalerriko ekintza plana?



Eta gainontzeko tokiko agenda 21ekin alderatuz?

Gure planeko **ekintza kopurua**, antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batez bestekoarekin alderatuz **altuagoa** da.

Inplikatuta dauden **eragileen kopurua** lurraldeko batez bestekoaren **baxuagoa** da.



2013ra arte zenbat gauzatu dugu?


Planaren **%61 gauzatu** da **7** urtetan

%6ko gehikuntza **2013an**


Eta zer adierazten du?

Lortutako gauzatze maila baxua da oinarri bezala desiragarria den **helburuko balioa** hartuz, baina **altuagoa** urte horretan bertan lurraldeko **batez besteko balioa** hartuz.

Planen batez besteko gauzatze-mailaren bilakaera helburuarekiko



Nola dago momentu honetan gure plana?



2013an amaitutako ekintza batzuk

2.2.2. Ikastetxea zaharberritu eta handitu

2.5.2. Ekintzak martxan jarri eskualde mailan burutzen ari den migrazio inguruko ikerketako emaitzak kontutan edukiz. (UT21 Ernioaldea).

3.2.1. EVErekin hitzarmena sinatu udal eraikinetan eta argiteria publikoan eraginkortasun energetikoari buruzko azterketak egiteko.

Ezartze-maila esanguratsua daukaten ildo estrategikoak

Burutzen ari diren **ekintza**
batzuk:

Herritarrekiko
komunikazioa, herritarren
sentikortze eta **parte**
hartzea
hobetzea **%75**eko
ezarpenarekin

Hiri ingurunearen eta
ingurumen zerbitzuen
hobekuntza bultzatzea
%68eko ezarpenarekin

- 6.2.1. Parte hartzea bermatuko duten kanalak egonkortu herritarren iritzia jasotzeko gai ezberdinen inguruan (Tokiko Agenda 21, AASSak, auzoetako beharrak,...).
- 6.3.2. Enpresak informatu eta sentsibilizatzeko ahalegin berezia egin.
- 3.2.2. EVEk egindako argiteria publikoaren eta udal eraikinaren energia eraginkortasunari buruzko azterketaren ondorengo neurriak hartu.
- 3.3.6. Konpostajearen esperientzia pilotua martxan jarri eta jarraipena egin (Tolosaldeko Mankomunitatea).

2014an sustapena behar duten ildo estrategikoak

Bioaniztasuna eta **paisaia babestu** eta udalerriko
gune eta **elementu esanguratsuak** ezagutaraztea
%45ko ezarpenarekin

Informazioa gehiagorako gure web-ean dagoen **ebaluazio txosten osoa** begiratu dezakezu:

www.asteasu.eu

Asteasuko Udaletik tokiko iraunkortasuna hobetzearen alde egin nahi dugu, gure ekintzek globalki ere izan dezaketen ondorioak kontutan izanik.

‘Globalki pentsatu eta tokian jardun’

